



E.A.E.ko UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA-JAZARPEN EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenak arautua, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpen egoeretan jarduteko Protokoloaren aplikazioa arautzen duten jarraibideei buruzkoak, 2019ko urriaren 11koa.



AURKIBIDEA

- Sarrera 3
- Eskema: Protokoloaren urratsak 5
- Eranskinak:
 - Esku-hartze eskariari buruzko Akta (0 Eranskina) 6
 - Ikastetxeko bileraren akta (I Eranskina) 8
 - Akta eredia 10
 - A Txostena (II Eranskina) 11
 - B Txostena (III Eranskina) 16
 - Ebazpena, Hezkuntza Sailburuordearena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpen egoeretan jarduteko protokoloaren aplikazioa arautzen duten jarraibideei buruzkoa 19



SARRERA

E

skola-jazarpen egoeretan jarduteko Protokoloak ezartzen ditu eskola-jazarpen kasu bat antzemanaz gero, edo haren berri izanez gero ikastetxeek eman beharreko urratsak.

Eskola-bizikidetza positiboa sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da protokoloa. Eta esku-hartze eskariren bat egon den kasu guztietan ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruaren jardungo dutela bermatzea da bere helburua.

Era berean, horrelako egoeratan eman beharreko urratsei buruzko orientabide argiak ematen ditu protokoloak. Oinarrizko jardueren proposamen bat da, eta ikastetxe bakoitzak bere inguruabar berezien arabera eta ezarritako bizikidetza-arauen barruan, zabaldu eta sakondu ahal izango ditu.

Halaber, jazarpenaren protokoloa neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak ireki aurretiko administrazio-jarduketa bat da, halakoak irekiz gero.

Protokoloaren helburua da ikastetxeetako irakasleek eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideek jakin dezatela nola jardun eskola-jazarpeneko balizko kasu baten aurrean. Bizikidetza positiboa bultzatu nahi du, jazarpenari emandako erantzunak beti eduki dezan 201/2008 Dekretuak ezartzen duen asmo hezitzailea, eta etorkizunean era horretako egoerak agertzea eragotziko duten balioetan oinarrituta elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasuna bultzatu dezan.

Protokoloak esku-hartzea arautzen du, eta honako printzipio hauen arabera gauzatuko da: prebentzioa, jazarpenarekiko sentsibilizazioa, konfidentzialtasuna, inplikaturako ikasleen babesa, koordinaturako esku-hartzea, sistematizazioa, eraginkortasuna eta berehalakotasuna.

Adingabeen datuen isilpeko tratamendua

Adingabeen datuak isilpean tratatu behar direnez, ez dira inoiz jasoko haien izen-abizenak protokoloaren aplikazioan sortuko den dokumentazioan, ikaslearen inzialak baino ez dira jasoko.

Ikastetxearen zuzendaritzatik, familiei jakinaraziko zaie oso garrantzitsua dela ez zabaltzea eskuratu ahal izan duten edozein informazio, protokoloa garatu bitartean.



Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentzialtasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei buruzkoa.

Jardun-protokoloaren dokumentazioa

Ikastetxeetan gertatutako eskola-jazarpeneko kasuetarako jardun-protokoloak atxikita daramatza zenbait akta eta txosten-eredu:

- Esku-hartzeko eskariari buruzko akta (0. eranskina).
- Ikastetxeko bileraren akta (I. eranskina).
- Akta eredia.
- A txostena (II. eranskina).
- B txostena (III. eranskina).

Protokoloaren hasiera.

Ikastetxeak eskola-jazarpen eremukoak izan daitezkeen jarrerak ikusi edo jakin dituen kasu guztietan hasiko da protokoloa: ikasleren batek beraren edo bere kideren baten aurkako ustezko jazarpen-egoera bat dagoela adierazten duenean; ikaslearen familiak edo legezko tutoreek hori adierazten dutenean; edo beste pertsona batzuk egoera zehatz bati buruz ohartarazi dutenean. Polizian edo epaitegietan salaketa bat jarri dela jakitean, Arartekoari igorritako kexa baten berri izatean, edota Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatzen duenean.

Ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatzen badira ere, protokoloari hasiera emango zaio eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen bada, edo 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan araututako gorabeheraren bat gertatzen bada.

Protokoloaren garapena

Zuzendariarena da ikastetxeko bizikidetzari buruzko ardura nagusia. Beraz, protokoloa erabiltzen dela bermatuko du eta haren garapena koordinatu, eta inplikaturako eragile guztien esku-hartzeen hezkuntza-izaera eta legezotasuna ere ziurtatuko ditu.


BAT taldeak gidatuko ditu ustezko jazarpen kasuei erantzuteko jarduketak eta bizikidetzaren positiboa eraikitzeko proposamenak egingo ditu, ikastetxeko Bizikidetzaren Behatokiaren orientazioekin bat etorrira. Honako hauek osatuko dute taldea: zuzendariak, ikasketa buruak, orientatzaile/kontsultoreak eta irakasle batek, Hezkidetzaren arduraduna izango den irakasleak hain zuzen ere.

Jarduketa-prozedura zehaztasunez azalduta dator **2019ko urriaren 11ko Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenean, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpen egoeretan jarduteko Protokoloaren aplikazioa arautzen duten Jarraibideei buruzkoan** eta Protokolo honen eranskin moduan agertzen da. Ebazpena azpiko loturan ere eskura daiteke, eta biziki gomendatzen da irakurtzea:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/haur-eta-lehen-hezkuntzako-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>



ESKEMA: PROTOKOLOAREN URRATSAK



- (1) Polizian edo epaitegietan salaketa jarri bada, edota Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatuta ere, jarriko da martxan protokoloa.
- (2) Erabaki hau erreferentziako ikuskaria kontsultatu ondoren hartuko da.
- (3) Familiei jakinaraztean garrantzitsua da Urratsean bildutako zenbait ezaugarri ziurtatzea.



0. ERANSKINA

ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

Eskariaren jatorria (*X batekin adierazi*)

Familia			
Bestelakoak		Adierazi eskariaren jatorria (<i>Monitorea, irakaslea, pediatra, etab.</i>)	

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- USTEZKO BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izen-abizenen inizialak	
Identifikazio-kodea	
Sexua	
Adina	
Maila/Taldea	

3.- AZALDUTAKO GERTAKARIAK

(Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira).



4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN NEURRIAK

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

Eskaria egiten duena

Sin.:
.....

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).



I. ERANSKINA

IKASTETXEKO BILERAREN AKTA

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren inizialak	

2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua*	Sinadura

* Adierazi zeintzuk diren BAT taldekoak.

3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhertasun osoz landu behar direla).

--

4.- HARTUTAKO ERABAKIAK

(Berariaz adieraziko dira protokoloari buruz hartutako erabakiak, ustezko biktima babesteko neurriei buruzkoak, salatutako gertakarien ustezko eragileari zuzendutako kautela-neurriei buruzkoak, halakorik badago, eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdiri buruz hartutakoak ere bai).

--

Horrez gain:

4.1.- Erreferentziako ikuskariarekin kontsulta egin eta gero, honako hau erabaki da:

Protokoloarekin jarraitu A txostena egin arte*	
Protokoloarekin ez jarraitu, jazarpenik ez baitago	

* Jazarpen-zantzuak badaude edo horiei buruzko zalantzak badaude, kasua argitzeko behaketa- eta ikerketa-prozesuekin jarraituko da, hau da, ikertzen jarraituko da A txostena egin arte.

4.2.- Jazarpenik EZ dagoela ebatzi bada, erabaki hori hartzea ekarri duten datuak eta ebidentziak adieraziko dira.



A) LORTUTAKO INFORMAZIOA

Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen prozedurak (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.).

Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, eskaria oinarri hartuta (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira).

B) INFORMAZIOA AZTERTZEA

Ondorio garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta.

C) JAZARPENAREN EZAUGARRIAK AZTERTU

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

- Ba al dago mina eragiteko intenzionalitaterik?

- Ba al dago pertsonalizaziorik?

- Ba al dago errepikapenik?

- Orokorrean aztertuta, jazarpenaren lau ezaugarrietako bakoitza aztertu denean ateratzen den ondorio bera ateratzen al da?

BA AL DAGO JAZARPENIK?	X batekin adierazi
EZ	

..... (e)n, 20.. (e)ko ren (e)an

Zuzendaria

Sin.:

OHARRAK: Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.

201/2008 Dekretuan jasotzen den jokabideak zuzentzeko prozedura aplikatu aurretik, erreferentziako ikuskaria kontsultatuko da.

**AKTA EREDUA****1.- BILERARA BERTARATUAK****2.- BILERAREN HELBURUAK****3.- ERABAKIAK, ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK**

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

Bertaratuak

Sin.:

Sin.:

Bileran egon diren pertsonak ez dituzte zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

OHARRAK:

- Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.
- Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentzialtasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturik gainerako ikasleei buruzkoa.



A TXOSTENA

II. ERANSKINA

1. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. BILDUTAKO HASIERAKO INFORMAZIOA¹

- Esku-hartzeko eskariaren jatorria:

(Tutorea, beste irakasle bat, ikasleak, familia, Berritzegunea, Hezkuntzako Ikuskaritza, beste batzuk)

- Esku-hartzeko eskariaren data:

- Salatutako gertakarien laburpena:

- Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak

a) Ustezko biktima:

	Ikaslea
Inizialak (izen-abizenak)	
Ikaslearen identifikazio-kodea	
Sexua	
Adina	
Maila eta taldea	

b) Salatutako jokabidearen ustezko eragileak

	Ikasleak		
Inizialak (izen-abizenak)			
Ikaslearen identifikazio-kodea			
Sexua			
Adina			
Maila eta taldea			

¹ Nahitaezko konfidentzaltasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.



- Ustezko jazarpena gertatu den lekua

- Lekukoak, baleude

INFORMAZIO OSAGARRIA

	X batekin adierazi
Badago mediku-txostena	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegian edo Fiskaltzan?	
Ikastetxeak ba al dauka salaketaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

3. IKASTETXEAK LORTUTAKO INFORMAZIOA²

Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen **prozedurak** (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, soziogramak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.).

Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, esku-hartzeko eskaria oinarri hartuta (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira).

4. INFORMAZIOA AZTERTZEA

² Ustez inplikaturik dauden ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.



Ondorio garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta.

5. JAZARPENA DAGOEN ALA EZ BALIOESTEA

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

- Ba al dago mina eragiteko intentzionalitaterik?

- Ba al dago pertsonalizatorik?

- Ba al dago errepikapenik?

- Orokorrean aztertuta, esan al daiteke badagoela ustezko biktimari nahita mina eragiteko jokabidea, jokabide hori errepikatu egiten dela eta biktima ez dela gauza bere burua defendatzeko?

BADAGO JAZARPENA

X batekin adierazi



BAI	
EZ	

Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezitasunak.

Adibidez: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko erasoak (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa – Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
2. Hitzezko erasoak – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) – Goitizena jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak izkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Eraso fisiko zuzenak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpn sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu- gehiegikeria gauzatzea. – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7. Ziberjazarpn – Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. - Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
8. LGTBIQ+fohiako ekintzak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak. - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTB pertsona izateagatik.				
9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak. - Larderia/xantaia/mehatxuak				

**10. Eraso arrazistak**

- Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea.
- Hitezeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak.
- Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak.
- Larderia/xantaia/mehatxuak

6. HEZKUNTZA-TRATAMENDUA- **Jazarpenik EZ dagoenerako hezkuntza-tratamendua**

(Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

--

- **Jazarpena baldin BADAGO: deskribatu biktimaren babesa bermatzeko ezarritako neurriak eta inplikaturik dauden ikasleekin hartutako neurriak** (Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

--

7. FAMILIEI JAKINARAZI

(datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.)

--

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin:

Sin:



B TXOSTENA

III. ERANSKINA

1. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimaren inizialak	

2. "A TXOSTENA" HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN ESKURATU DEN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA DATU ESANGURATSUAK³

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan oharmandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.

3. JARDUKETA PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

Hezkuntza-jarduerak

- Biktimarekin

³ Implikatutako ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.



- Jokabide jazarlea duten ikasleekin

- Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin

Beste jarduketa batzuk

- Familiekin

- Irakasleekin

Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak

4. BILERAK FAMILIEKIN EDO LEGEZKO TUTOREEKIN

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.



5. JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

Hezkuntzako Ikuskaritzari informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....(e)n, 20....(e)koren (e)an.

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin:

Sin:



**EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA, EAEKO UNIBERTSITATEAZ
KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA-JAZARPEN EGOERETAN JARDUTEKO
PROTOKOLOAREN APLIKAZIOA ARAUTZEN DUTEN
JARRAIBIDEEI BURUZKOA**

HITZAURREA

Eskola-bizikidetzari buruzko ikerketa ospetsuek alderdi positiboetatik heltzea gomendatzen dute, bizikidetzaren positiboarentzat lagungarri diren estrategietan arreta handiagoa jartzeko, bizikidetzaren kontrako kasuei eman beharreko erantzun puntualean baino. Ikuspegi horrek eskola-giro egokia lortzen laguntzen du, eta ikasleei garapen pertsonal eta sozialerako gaitasunak eskuratzen laguntzen die.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak ezarritako helburuen artean dago ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, bizikidetzaren demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoak, honako helburua du: ikastetxeetako bizikidetzaren esparrua arautzea, ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikas dezaten, gizartean eskubide osoko herritar gisa integratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratuta.

Aipatu dekretuak eremu horrekin lotutako ikasleen zenbait eskubide biltzen ditu, hala nola arreta berehala jasotzeko eskubidea, ikastetxeak haiek babesteko eskubidea eta ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea. Halaber, ikastetxeetako gobernu-organoak, irakasleak eta gainerako langileak elkarlanean aritu beharko dira jazarpena errotik ezabatzeko. Horretarako, ezarritako prozeduren arabera jokatu behar dute eta horrelako portaeren edozein zantzu antzemanaz gero, zuzendariari jakinaraziko diote, honek hezkuntza-administrazioari helarazi diezaion.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak, inspirazio-iturri dituen oinarrizko printzipioen artean adierazten du eskola-bizikidetzaren egokia izango bada, hezi beharra dagoela bake positiboan, giza eskubideetan, justizian, elkartasunean eta inklusioan. Era berean, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeen artean daude honako hauek: ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetzaren harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak; eta natura zaintzearekin eta garapen jasangarriarekin konprometituak.

Eskola-jazarpena ikasleen eskubideak erasotzen dituen jokabidea da, eta, zoritxarrez badu presentzia gure ikastetxeetan. Ez da unean uneko arazo isolatua, egiturazko erro sakonak ditu eta, ondorioz, haren konponbideak eskola-komunitate osoaren ahalegina eskatuko du. Horrela bada, hezkuntza-sistemak eta ikastetxeek ikasgeletatik eskola-jazarpena desagerrarazteko ardura hartu behar dute bere gain, eta, horretarako, ekintzak zentzuz garatu behar dituzte. Bestela, ezin izango dute eman zaien agindu soziala bete, hots, ikastetxeak indarkeriarik gabeko gune bihurtzea.

Ikastetxeetan sor zitezkeen eskola-jazarpen egoeren kudeaketa errazteko asmoz, 2004/2005 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailak ikastetxeen esku jarri du *EAEko*



ikastetxeetan eskola-jazarpen kasuetan jarduteko Gida. Gerora, gida hori bi aldiz aldatu da, araudiaren gaurkotze desberdinei erantzuteko.

Gida horretan dago ezarrita eskola-jazarpen kasu bat antzemanaz gero edo haren berri izanez gero jarraitu beharreko protokoloa, eta ikastetxeek eman beharreko urratsak.

Eskola-bizikidetza positiboa sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da protokoloa. Eta esku-hartze eskariren bat egon den kasu guztietan ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruen jardungo dutela bermatzea da bere helburua.

Era berean, horrelako egoeratan eman beharreko urratsei buruzko orientabide argiak ematen ditu protokoloak. Oinarrizko jardueren proposamen bat da, eta ikastetxe bakoitzak bere inguruabar berezien arabera eta ezarritako bizikidetza-arauen barruan, zabaldu eta sakondu ahal izango ditu.

Jarduketa horiez gain, modu osagarrian, Hezkuntza Sailak Bizikasi ekimena jarri zuen martxan 2017-2018 ikasturtean.

Ekimen horrek norberarekiko eta pertsonen arteko harremanak berreskuratzeko eredua hartzen du oinarriztat, eta jazarpen kasuak ebazteko prozesuan esku-hartzea ikuspegi sistematikoko-ekologikoa⁴ ardatz hartuta egitea bultzatzen du.

Bizikasi ekimenak euskal ikastetxeek bizikidetza positiboa garatzeko eta jazarpena errotik ezabatzeko abiarazi dituzten jarduketa eta programa espezifikotako asko integratzen ditu. Ikuspuntu horretatik, jarduketa guzti horien ardatz bihurtzen da, aberastu egiten ditu eta zentzua ematen die jarduketa horiei. Ikusmolde hau kontuan hartuta, jarduketak proposatu, eta ekimenaren tresnak diseinatu dira.

Azken batean, ikastetxeak bizikidetza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik toleratzen ez duten espazio bihurtzea da Bizikasi ekimenaren helburua. Izan ere, hori lortzea ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren xede nagusia betetzeko, alegia: ikasle guztiei laguntzea haien garapen pertsonalean zehar eta, kompetentziak eta tresnak ematea gizartean parte har dezaten herritar aktibo eta arduratsu gisa.

Hona hemen protokoloaren jarraibideak.

Lehenengoa. Jarraibideen helburua.

Jarraibideen helburua da EAEko ikastetxeetan protokoloaren erabilera arautzea ustezko jazarpen-kasuekin lotutako eskarien aurrean.

Jazarpenaren protokoloa neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak ireki aurretiko administrazio-jarduketa bat da, halakoak irekiz gero.

Protokoloaren helburua da ikastetxeetako irakasleek eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideek jakin dezatela nola jardun eskola-jazarpeneko balizko kasu baten aurrean. Bizikidetza positiboa bultzatu nahi du, jazarpenari emandako erantzunak beti eduki dezan 201/2008 Dekretuak ezartzen duen asmo hezitzailea, eta etorkizunean era

⁴ Testuinguru-esparru interaktiboan, erantzukidetasunez eta hezkuntza-komunitateko eragile guztien baterako jarduera koordinatuaren bitartez, kaltetutako harremanak lehengoratzera bideratutako eta bizikidetza positiboa berrezartzera bideratutako dinamikak garatuko dira.



horretako egoerak agertzea eragotziko duten balioetan oinarrituta elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasuna bultzatu dezan.

Protokoloak esku-hartzea arautzen du, eta honako printzipio hauen arabera gauzatuko da: prebentzioa, jazarpenarekiko sentsibilizazioa, konfidentziasuna, inplikaturako ikasleen babes, koordinaturako esku-hartzea, sistematizazioa, eraginkortasuna eta berehalakotasuna.

Oinarritzkoa eta nahitaez bete beharrezkoa da protokoloa, baina ikastetxe bakoitzak egokitu edo zabandu ahal izango du, bere testuinguruaren edo kasuaren berezitasunen arabera.

Bigarrena. Eskola-jazarpenaren definizioa.

Agerikoa da ikastetxeak kokatuta dauden tokiko inguruabarrek eragina dutela ikastetxeetako bizikidetzan. Indarkeriaren fenomeno sozialaren aurrean ikastetxeek ezin dute aldentuta geratu. Era askotara azaleratzen da indarkeria, eta honako hauek ikus ditzakegu: jarrera disruptiboak, elkarren arteko harreman txarrak, behar bezala konpondu ez diren gatazkak, baita inplikaturako guztientzako suntsitzaileak izan daitezkeen jazarpen jarrerak ere.

Indarkeriazko jarrera guztiak ez dira jazarpentzat hartu behar. Iritzi orokorraren arabera, hauxe da eskola-jazarpen bat modu espezifikoan bereizten duena: behin eta berriz gertatzea eta denboran zehar irautea, helduen begiradatik urrun eta babesik gabeko biktima bat umiliatzeko eta gehiegikeriaz menderatzeko asmoarekin (Aviles, 2006). Hau da, botere-desoreka eta biktima babesgabe egotea, besteari kaltea eragiteko nahia egotea eta denboran zehar errepikatzea.

Dena den, aipaturako lau ezaugarrioz gain, batzuetan eskola-jazarpena dagoela zehaztea erraza den arren, beste batzuetan, jazarpen-egoerak eta jazarpentzat hartu ezin daitezkeenak banantzen dituen lerroa lausoa eta zehatz-mehatz zehazteko zaila izaten da, eta sarritan kasu «poliedrikoak» izaten dira, ñabardura eta konplexutasun handikoak.

Era berean, jazarpena definitzen duten ezaugarrien garrantzia ez da berdina aztertutako kasu guztietan. Egoera horien larritasuna aldatu egiten da kasu batetik bestera honako hauen arabera: igarotako denbora, eraso-dinamikaren intentsitatea, erasotzailearen jarreraren zigorgabetasuna, biktimaren babesgabetasuna, intenzionalitate-maila, etab.

Beraz, aipaturako lau ezaugarri horiez gain, beti da beharrezkoa kasu bakoitza modu orokorrean aztertzea, inplikaturako dauden pertsonen sortutako arazoaren eragina eta denboran zehar izan duen bilakaera modu orokorrean analizatzea, jazarpena dagoen ala ez eta haren dimentsioari buruzko balio-iritzi eztabaiaezina eta oinarritua eman ahal izateko.

Hirugarrena. Protokoloa.

a) Alderdi orokorrak.

Adingabeen datuen isilpeko tratamendua.

Adingabeen datuak isilpean tratatu behar direnez, ez dira inoiz jasoko haien izen-abizenak protokoloaren aplikazioan sortuko den dokumentazioan, ikaslearen inzialak baino ez dira jasoko.



Ikastetxearen zuzendaritzatik, familiei jakinaraziko zaie oso garrantzitsua dela ez zabaltea eskuratu ahal izan duten edozein informazio, protokoloa garatu bitartean.

Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentzialtasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei buruz.

Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen eginkizunak.

Usteko jazarpen-kasuekin lotutako demanden aurrean, protokoloa aplikatzearen ondoriozko kudeaketa egokia bermatzera dago zuzenduta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen arteko lan koordinatua.

Ikastetxeetan egingo diren esku-hartze guztiak eta protokoloan sortuko den dokumentazioa gainbegiratzeko ardura edukiko du Hezkuntzako Ikuskaritzak.

Berritzeguneak, berriz, arduradunak dira BAT (Bullying-aren Aurkako Taldea) taldeei eta zentroko zuzendaritzari aholkularitza emateko protokoloa garatzean egingo diren esku-hartzeetan.

Jardun-protokoloaren dokumentazioa.

Ikastetxeetan gertatutako eskola-jazarpeneko kasuetarako jardun-protokoloak atxikita daramatza zenbait akta- eta txosten-eredu:

- Esku-hartzeko eskariari buruzko akta (0. eranskina).
- Ikastetxeko bileraren akta (I. eranskina).
- Akta eredia.
- A txostena (II. eranskina).
- B txostena (III. eranskina).

Informazioa bidaltzea Hezkuntzako Ikuskaritzara eta Berritzeguneetara

Ikuskaritzara igorriko dira:

- 0. eta I. eranskinen kopiak. Jatorrizkoak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura egongo dira.
- A eta B txostenak, jatorrizkoak.

Berritzeguneko Zuzendaritzara igorriko dira:

- 0. eranskinen kopiak.
- B. txostenaren kopia.

Protokoloaren epeak.

Errespetatu egingo dira urrats bakoitzean adierazitako epeak. Adierazitako epeak ezin direla bete irizten badu zuzendariak, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren oniritzia eskatu beharko du.

b) Protokoloaren hasiera.

Ikastetxeak eskola-jazarpen eremukoak izan daitezkeen jarrerak ikusi edo jakin dituen kasu guztietan hasiko da protokoloa: ikasleren batek beraren edo bere kideren baten



aurkako ustezko jazarpen-egoera bat dagoela adierazten duenean; ikaslearen familiak edo legezko tutoreek hori adierazten dutenean; edo beste pertsona batzuk egoera zehatz bati buruz ohartarazi dutenean. Polizian edo epaitegietan salaketa bat jarri dela, Arartekoari igorritako kexa bat edota Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskaera dagoela jakitean ere hasiko da protokoloa.

Ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatzen badira ere, protokoloari hasiera emango zaio eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen bada edo 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan araututako gorabeheraren bat gertatzen bada.

c) Protokoloaren garapena.

Zuzendariarena da ikastetxeko bizikidetzari buruzko arduraren nagusia. Beraz, protokoloa erabiltzen dela bermatuko du eta haren garapena koordinatu, eta inplikaturako eragile guztien esku-hartzeen hezkuntza-izaera eta legezketasuna ere ziurtatuko ditu.

BAT taldeak gidatuko ditu ustezko jazarpen kasuei erantzuteko jarduketak eta bizikidetzaren positiboa eraikitzeko proposamenak egingo ditu, ikastetxeko Bizikidetzaren Behatokiaren orientazioekin bat etorrira. Honako hauek osatuko dute taldea: zuzendariak, ikasketa buruak, orientatzaile/kontsultoreak eta irakasle batek, Hezkidetzaren arduraduna izango den irakasleak.

Jarduketa-prozedurak honako fase hauek ditu:

1. urratsa.- Esku-hartzeko eskaria (hezkuntza-komunitateko kideak, ustezko biktimaren familia) jazarpentzat jo daitezkeen jokabideen aurrean.

Jazarpena ez da erraz behatzekoa. Horregatik, ezinbestekoa da ikastetxearen ohiko dinamikan hezkuntzako eragile guztien sentsibilizazioa eta arreta sistematikoa eta orientatua txertatzea, batez ere irakasleena eta ikasleena, jazarpenarekin lotuta egon daitezkeen egoera eta portaerei dagokienez. Komunikazio-bide egokiak ere ezarri behar dira ikastetxeko bizikidetzaren egoerari buruzko informazio garrantzitsuen berri edukitzeko, eta, zehazki, jazarpenarekin lotutako jokabide posibleen berri. Jazarpenari buruzko curriculum-jarduera espezifikoak ere jarri behar dira martxan.

Eskola-jazarpenari lotutako jokabide edo zantzuren bat ikus edo ezagut lezakeen hezkuntza-komunitateko edonork jakinarazi beharko dio BAT taldeko arduradunen bati edo irakasleren bati eta honek BAT taldeari jakinarazi beharko dio. Esku-hartzeko eskaria 0. eranskinean jasoko da. Premiazko hasierako neurriak hartuko dira ustez jazarpena jasotzen duen ikaslea babesteko.

Gerta daiteke, halaber, ikasle baten familia izatea ikastetxera joan eta bertako kide bati -zuzendaritzako, BAT taldeko edo irakasle bati- jakinaraztea bere seme edo alabarekin lotutako eskola-jazarpen jokabideen edo zantzuen inguruko ezinegona.

Jazarpena badagoen ala ez gerora egingo den balorazioa gorabehera, familiak esku-hartzeko eskaria jakinarazten duen unean, zuzendaritzak beharrezkoa den arreta guztia emango dio familiari eta ikaslea babesteko premiazko neurrien berri ere emango dio. Lankidetzaren estuan jarduteko eskatuko zaio, izan ere erantzukizuna partekatzea baita inplikaturako adingabeari laguntzeko modurik egokiena. Jazarpena egon badagoela pentsatuta jardungo da. Edonola ere, protokoloa aplikatuta, jazarpena badagoela ala ez egiaztatu ahal izango da arrazoiak emanez.

Familiak jakinarazitako guztia, gertatutakoen deskripzioa eta emandako informazioa, eta ikaslea babesteko ikastetxean hartutako premiazko neurriak akta batean jasoko dira

(0.eranskina). Aktaren kopia bat familiari emango zaio eta kopiak igorriko dira, halaber, Hezkuntzako Ikuskaritzara eta Berritzeguneko Zuzendaritzara.

2. urratsa.- Irakasle-taldearen bilera. Protokoloarekin jarraitzeari buruzko erabakia (I. eranskina).

Esku-hartzeko eskariari buruzko akta (0. eranskina) bete eta gero, gehienez ere bost eskola-eguneko epe barruan, ikastetxeko zuzendaritzak bilerarako deia egingo dio BAT taldeari, inplikaturako irakasleei eta kasuari buruzko informazio esanguratsua eman dezaketen ikastetxeko bestelako langileei. Testuinguru honetan, inplikaturako irakasleak izango dira kasuan inplikaturako ikasleekin harremana dutenak: tutorea, irakasle-taldeko beste kide batzuk, eta jakinarazitako ustezko eskola-jazarpenarekin lotutako egoeretan lekuko izan diren beste irakasle batzuk ere bai.

Bilera horren akta egingo da (I. eranskina).

Denbora-epe horretan, BAT taldeak ustezko jazarpenaren jatorrian dauden gertakariei buruzko frogen bilketa sistematikoa antolatuko du. Ustez jazarpena pairatu duen ikaslea babesteko neurriak ere antolatuko ditu.

Informazio bilketa nabarmendu gabe eta sistematikoki egingo da, eta inplikaturako dauden ikasleen adina, heldutasuna edo gogo-aldarteak kontuan hartuta, haien kaltegarritasunak izan daitezkeen edo kasuaren ezaugarriak zaildu dezaketen metodoak erabiltzea saihestuko da.

Fase honetan, Berritzeguneko erreferentziako aholkularia BAT taldearekin jarriko da harremanetan eta datuak eta beharrezko ebidentziak antzeman eta biltzeko beharrezkoak diren tresnak eta estrategiak jarriko dizkio eskura hezkuntza-taldeari.

Ordura arte bildutako informazio eta datu guztiak kontuan hartuta eta inplikaturako irakasleen balorazioan oinarrituta, ikastetxeko bileraren aktan (I. eranskina) jazarpen-zantzurik dagoen ala ez adieraziko da.

Jazarpenik ez dagoela erabat ziur egonez gero, aktan (I. eranskina) azalpen arrazoitu bat jaso beharko da, eta irakasle-taldeak zehaztu egin beharko du martxan jarriko duen hezkuntza-erantzuna, erreferentziako aholkulariak emandako jarraibideak kontuan hartuta. Kasu horretan, protokoloarekin ez jarraitzea erabakiko da. Alabaina, erreferentziako ikuskariak beharrezkotzat jotzen badu, protokoloa jarraitu beharko da A txostena egin arte.

Aitzitik, jazarpen-zantzuak badaude edo horiei buruzko zalantzak badaude, kasua argitzeko behaketa- eta ikerketa-prozesuekin jarraituko da, hau da, ikertzen jarraituko da A txostena egin arte. Kasu horretan, esku-hartzeko eskaria familia ez den hezkuntza-komunitateko kideren batek egin duenean, ikastetxeko zuzendaritzak ustezko biktimaren familiari deituko dio harekin elkarriketatzeko, eta bileraren akta egingo du (0. eranskina).

Hori guztia, ikastetxeko bileraren aktan jasota geratuko da (I. eranskina).



3. urratsa.- Informazioa biltzen eta aztertzen jarraitzea (A txostena). Familiei jakinaraztea.

Protokoloarekin jarraitzea erabaki bada, 15 eskola-eguneko beste epe bat irekiko da eta BAT taldeak kasuaren jatorrian dauden gertakariei buruzko ebidentzia berrien bilketa antolatuko du.

Eskola-jazarpena definitzen duten ezaugarriak kontuan hartuta, bildutako ebidentziak aztertuko dira eta balorazioa egingo da jazarpena badagoen ala ez. Badagoela ebatziz gero, haren tipologiari buruzko balorazioa ere egingo da. Funtsezkoa da erabakiak probatzeko moduko datu objektiboetatik abiatuta hartzea beti.

Bildutako informazioarekin eta azterketaren ondorioekin zuzendaritzak A txostena osatuko du.

Behar izanez gero, denbora-tarte horretan ustezko biktima babesteko neurriak berrikusiko dira, haren segurtasuna bermatzen jarraitzeko eta, hala badagokio, eraso gehiago eragozteko.

Era berean, denbora-tarte horretan, jazarpena ustez pairatu duen ikaslearen familiarekin komunikazio eta koordinazio sistematikoa izan beharko da, egoera modu egokian kudeatzeko eta ikaslearen segurtasuna babesteko.

Jazarpena egon dela baloratu bada, portaera erasotzaileak izan dituzten ikasleen familiei banan-banan deitu beharko zaie, hartutako neurrien berri emateko eta egin dituzten ekintzek izan ditzaketen ondorioen berri emateko. Biler horiek aurreratu edo atzeratu ahal izango dira baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude, eta betiere erreferentziako ikuskatzailea kontsultatu eta gero. Familiekin egingo diren bilerak banan-banan egingo dira haietako bakoitzarekin.

Bilera guztietako aktak egingo dira eta bertan adieraziko dira bileraren helburua, parte hartu dutenak, ondorioak eta proposamenak, emandako ereduaren arabera (Akta eredu).

A txostena lantzeko epean zehar, bai Hezkuntzako Ikuskaritzak, bai Berritzeguneko aholkulariek, jardueren jarraipena egingo dute BAT taldearekin koordinatuta. Fase honetan, erreferentziako aholkulariak laguntza emango dio BAT taldeari honako alderdi hauei buruz:

- Estrategien erabilera diagnostikorako eta detekziorako, eta datuak eta ebidentziak biltzeko.
- Inplikaturako ikasleekin eta familiarekin egin beharreko esku-hartzeetarako materialak eta prozedurak.
- Dena delako eskola-jazarpenerako kasu zehatzaren ezaugarri bereziak.

Kasuari lotutako ezaugarri bereziek hala eskatuz gero, zuzendariak erabakiko du, BAT taldearen balorazioak oinarri hartuta, Berritzeguneko aholkularien edo erreferentziako ikuskariaren bestelako esku-hartzeren bat eskatu behar den, horietako bakoitzaren jarduera-eremuaren arabera.

4. urratsa.- Hezkuntza-neurriak, eskola-jazarpeneraren ebidentziak aurkitu EZ badira.

A txostenaren arabera, EZ bada jazarpenik egon, BAT taldeak proposatuko dio zuzendariari kasuari eman behar zaion hezkuntza-erantzuna, betiere bizikidetzaren positiboa bultzatzera bideratuta. Horretarako, Berritzegunearen laguntza izango du.



Erabakia A txostenean jasota geratuko da, dagokion atalean.

Jazarpenik dagoen ala ez alde batera utzita, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta haren aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziako ikuskariaren aholkularitza izango du.

5. urratsa.- Hezkuntza-neurriak, eskola-jazarpenaren ebidentziak BAI aurkitu badira.

A txostenaren arabera, jazarpena egon bada, beste denbora-tarte bat irekiko da non BAT taldeak esku-hartze berriak abiaraziko dituen honako helburu nagusi hauekin: jazarpen-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, jarduketa-plan bat lantzea inplikaturako ikasleentzat edota taldea-gelarentzat, hala badagokio, eta familiekin komunikazioa mantentzea.

Helburu horietarako, B txostena egingo da, eta adierazitako elementu horiez gain, A txostena egin zenetik informazio gehigarria edota beste datu esanguratsurik ote dagoen adieraziko du. Ikastetxeko zuzendaritzak 22 eskola-egun izango ditu, A txostena egin zenetik aurrera, B txostena ikuskaritzara eta Berritzeguneko erreferentziako aholkularitzara bidaltzeko.

Berritzeguneko aholkularitza emango dio BAT taldeari jazarpenaren biktima izan den ikaslearekin, jazarpen-portaerak dituzten edo izan dituztenekin, jazarpen-kasuen lekuko izan direnekin eta familiekin nola jardun behar duen azaltzeko. Kasuaren berezitasunak kontuan hartuta hala komeni bada, talde-gelaren bizikidetzara berrezartzera bideratutako esku-hartze espezifikoa egingo da.

6. urratsa.- Bestelako instantziei jakinaraztea.

Kasuak bereziki larriak direnean edo delitu-zantzuak daudenean, zuzendariak, Hezkuntzako Ikuskaritzak lagunduta, Fiskaltzari emango dio gertakari berri. Jakinarazpen hori egiteko jarraibideak 201/2018 Dekretuaren 75. artikuluan daude jasota.

7. urratsa.- Protokoloa amaitzea.

Jazarpen-egoera konpondu ez bada edo oraindik ere irauten duenaren zantzuak badaude, jarduera-plana ez da etengo.

BAT taldearen balorazioarekin bat etorrira, egoera bideratuta dagoela uste bada, zuzendaritzak amaitutzat joko du prozesua eta horren berri idatziz emango die erreferentziako ikuskariari eta Berritzeguneko erreferentziako aholkulariari.

Laugarrena. Sentsibilizazioa eta prestakuntza jazarpenaren inguruan. Protokoloa zabaltzea.

Hezkuntza Sailak, Bizikasi ekimenaren bitartez, eskola-jazarpenari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziazio-kanpainak egingo ditu eta BAT taldeei prestakuntza emango die. BAT taldeek, bestalde, bakoitzak bere hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuak sentsibilizatu eta prestatuko dituzte. Prestakuntza horren barruan sartuta egongo da jazarpenari buruzko protokoloaren edukiak zabaltzea.



Seigarrena. Eskola-jazarpen kasuetan jarduteko gida.

Eskola-jazarpen kasuetan jarduteko gida ikastetxeen eskura dago Hezkuntza Sailaren web-orrian, problematika konplexu honi aurre egiteko orduan irakasle eta zuzendaritza-taldeentzat lagungarri izan dadin eta, aldi berean, begirune eta tolerantzian oinarritutako eskola-bizikidetzak egokia lortzen lagundu dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 11a.

Maite Alonso Arana
Hezkuntza sailburordea